## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

| | |
|---|---|
| **Departamentua:** | 01 - DIPUTATU NAGUSIA |
| **Atala:** | 0120 - Estrategia Zuzendaritza Nagusia |
| **Programa:** | 200 - Estrategia |
| **Funtzionala:** | 912 - Gobernu organoak |

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Estrategiako Zuzendaritzaren xedea da diputatu nagusiari laguntzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 aldirako estrategia orokorra definitzen, gauzatzen eta ebaluatzen. Guztia ere Etorkizuna Eraikizek proposatutako lankidetzako gobernantzaren ereduaren baitan eta lurraldearen erronka handiei aurre egiteko, berrikuntzatik eta esperimentaziotik, hainbat departamenturen arteko eta hainbat mailatako ikuspegitik, eta betiere Gipuzkoako eragile ekonomiko eta sozialen eta herritarren lankidetzarekin.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Etorkizuna Eraikiz ekimena 2015-2019 Plan Estrategikoarekin sortu zen, orduan identifikatu ziren eta oraindik ere bere horretan jarraitzen duten bi erronka handiri erantzuteko: herritarrek eta gizarte eragileek oro har politikarekiko duten desafekzio handia eta Gipuzkoako erronkei aurre egiteko agenda publiko berritzaile bat eraikitzeko beharra.
8 urteko ibilbidearen ondoren, Etorkizuna Eraikiz guztiz finkatuta dago. Etorkizuna Eraikizek erronka horiei aurre egiteko proposatzen du espazioak eta programak gaitzea entzuteko, eztabaidatzeko eta deliberatzeko, horien emaitzak politika publikoetan txertatzeko asmoz. Sonia Ospina New Yorkeko Unibertsitateko kudeaketa Publikoko eta Politikako irakaslearen iritziz, Etorkizuna Eraikiz «arkitektura polizentriko bihurtu da», lankidetzako hainbat espazio biltzen dituelako eta horietatik lankidetzako ekosistema propioak sortzen direlako, politiketan hainbat tresnaren bidez eragiten duten loturen logika batean jardunda.
Ekimenaren ibilbidea berriki ebaluatu da, eta ikusi da Etorkizuna Eraikiz indartu egin dela foru erakundean sartu ahal izan dituen aldaketei esker. Nabarmentzekoa da palanka garrantzitsua izan dela lankidetzako gobernantza txertatzeko Aldundiaren diskurtso eta agenda politikoan; halaber, malgutasun handiagoa eman dio gure administrazioari eta, aldi berean, lankidetzazko dinamika berriak sortu ditu foru administrazioaren, enpresa sarearen, ezagutzaren eragileen (akademia + I+G+b) eta gizarte zibilaren (hirugarren sektorea + herritarrak) artean, helize laukoitzaren eredupean, ekimen eta programa zehatzen bidez.
Are gehiago, 2023ko hasieran, Etorkizuna Eraikiz kasua argitaratu zen (Lovainako Unibertsitateak argitaratutako argitalpen preakademikoa), eta Bruselan aurkeztu zen, «Building collaborative governance in times of uncertainty» izenburupean. Lankidetzako gobernantzaren arloko akademikoen partzuergo batek hartu du parte -kide guztiak munduko unibertsitaterik onenetakoak ziren-, Etorkizuna Eraikiz gobernantza aurreratuko eredutzat dutelako eta beste herrialde eta gobernu batzuentzat erreferentzia izan daitekeelako.
Aipatutako ariketei esker (Etorkizuna Eraikiz ebaluatzea eta Kasua argitaratzea), ekimenaren inguruko hausnarketa sakon bat egin ahal izan da eta lortutakoa identifikatu (ekimena baliozkoa den zehazteko), baina baita aurrerantzean zer erronka eta zailtasun izango dituen ere. Halaber, prozesu bietan burutu diren bilera eta saioetatik galdera garrantzitsuak sortu dira, hala nola, Etorkizuna Eraikizek aurrerantzean izango dituen irismen eta garapenari buruzkoak. Eta galdera horien erantzuna, neurri batean behintzat, legegintzaldi berrirako prestatuko den 2024-2027 Plan Estrategikoaren bidez gauzatuko da.
Hala, plan estrategiko berriaren inguruan, ikusi da beharrezkoa dela Etorkizuna Eraikiz elementu nagusi izatea. Etorkizuna Eraikiz da erakunde baten kudeaketa ireki eta adimendunaren adibide, sustatzen duelako esplorazioa, lankidetzan burututako berrikuntza eta esperimentazioaren bidez. Are gehiago, irudia da Etorkizuna Eraikiz dela Gipuzkoako Foru Aldundiaren agenda eraldatzaile eta berritzailea, eta plan estrategikoa, aldiz, hori gauzatzeko bidea edo ibilbide orria.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Testuinguru horretan, Estrategiako Zuzendaritzaren aurrekontu programatik erronka hauek identifikatzen dira 2024rako:
- 2024-2027 aldirako Plan Estrategiko berriaren hedapena bultzatzea, egoki diren koordinazio, lankidetza barnekoak eta kanpokoak (eragileak, herritarrak eta beste administrazio batzuk) eta jarraipen EBA, adierazleen sistema, etab. bitartekoekin, ikuspegi sistemikoa bermatzeko.
- Etorkizuna Eraikizen eta Estrategiako Zuzendaritzan burutzen den jardueraren inguruko ezagutza

sistematizatzea eta kudeatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren malgutasuna indartzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia eraldatzea, lankidetzaren, berrikuntzaren eta irekieraren logikara gehiago hurbiltzen diren balioak eta jarduna dituen erakundea izan dadin.
- Etorkizuna Eraikiz ereduan akademikoki sakontzea, lankidetzako gobernantzako tresna gisa.
- Plan estrategikoaren eta lankidetzako gobernantzaren inguruko emaitza, lorpen eta praktika onak sozializatu eta komunikatzea.

**Nori zuzendua:**

Diputatu Nagusia eta GFAko gainerako departamentuak. Eragile sozialekin, ekonomikoekin eta herritarrekin harremanak landuz.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Giza baliabideak, aplikazio eta egitura informatikoak, aurrekontuak-finantza baliabideak eta laguntza teknikoa.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

- 2024-2027 Plan Estrategikoaren hedapena, jarraipena eta ebaluazioa bultzatzea eta babestea, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan:
 Plan Estrategikoaren barne-gobernantza antolatu eta abian jartzea.
 Plan Estrategikoaren etengabeko ebaluazioa egiteko mekanismoak diseinatzea.
 Plan Estrategikoan jasotako helburuak eta ildo estrategikoak lortzeko lankidetza, aurretiazko hausnarketa, ikuspegi sistemikoa, berrikuntza, nazioartekotzea eta esperimentazioa ahalbidetuko duten programak eta ekimenak artikulatzea eta abian jartzea.
 Plan Estrategikoaren aurrerapenen eta emaitzen sozializazioa eta komunikazioa.

- Etorkizuna Eraikiz ereduan sakontzea, demokraziaren krisiaren aurrean lankidetzazko gobernantza sustatzeko formula gisa.
- Etorkizuna Eraikizen eta Estrategia Zuzendaritzaren esparruan sortutako ezagutzaren kudeaketa adimenduna egitea.
- Elkargoarekin eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuarekin mugaz gaindiko lankidetza sendotzea, proiektu komunak garatuz.
- Lurraldeko eragileen ekimen bereziak babestea, lankidetzazko gobernantzari, balio demokratikoei eta herrigintzari buruzko ikerketarekin, akademizazioarekin eta esperimentazioarekin lotuta.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

- 2024-2027 Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema iteratiboa, Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan.
- 2024-2027 Plan Estrategikoaren hedapenean lankidetzazko gobernantza eta esperimentazioa sustatzeko programak eta proiektuak, Etorkizuna Eraikizen esparruan.
- Etorkizuna Eraikizen eta Estrategia Zuzendaritzaren baitan sortutako ezagutzaren kudeaketa adimenduneko sistema.
- Eurohiria birsortzea eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuarekin mugaz gaindiko lankidetza sendotzea.
- Lankidetzazko Gobernantzari buruzko Nazioarteko Sarea sendotzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Onaren politika Etorkizuna Eraikizekin lerrokatzeko kontzeptu-esparrua ezartzea.
- Lurraldeko eragileen ekimen bereziak lankidetzazko gobernantzaren eta balio demokratikoen esparruan.

**Programaren arau esparrua:**

6/2005 FORU ARAUA, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
14/2020 Foru Dekretua, urriaren 20koa, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.
2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako, Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2020-2023) eta ezargarria den gainerako araudia.
Kontratazioari, dirulaguntzei, hitzarmenei eta aurrekontu-kudeaketari buruzko aplikagarri den araudia.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Lankidetzazko Gobernantzaren bitartez agenda politiko berritzailea sustatzea Etorkizuna Eraikizen markoan.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Konfiantza Gipuzkoako Foru Aldundian | Eskala 1-10 | >= | 5,58 | 5,58 | 5,63 | 5,75 |
| Emakumezkoak | | | 5,71 | 5,71 | 5,76 | 5,90 |
| Gizonezkoak | | | 5,45 | 5,45 | 5,50 | 5,60 |
| Etorkizuna Eraikizen proiektu esperimentalak | Kopurua | >= | 0,00 | 0,00 | 17,00 | 48,00 |

### Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

**1. Jarduketa ildoa:**
Etorkizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatzea, kontrolatzea eta jarraitzea.

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 5,13 — 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 71,15 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 23,72

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **134.663,91** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikizen zuzendaritza, portafolioa eta monitorizazioa | 127.756,48 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.2 Ekintza**<br>Programaren dirulaguntzen edota kontratuen mapa linguistikoa osatu | 6.907,43 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | |

**2. Jarduketa ildoa:**
Gipuzkoa Taldean bultzatzea eta garatzea, hausnarketarako, eztabaidarako eta entzuteko gunea.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 57,36 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 42,64

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **1.125.077,38** | **499.000,00** | | **2024/01/01** | **2025/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Think Tank-ari laguntza eskaini plangintza eta kudeaketan | 112.693,89 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2.2 Ekintza**<br>Herritarren proiektuen kudeaketa eta bultzada | 651.447,58 | 350.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **2.3 Ekintza**<br>Gazteen proiektuen kudeaketa eta bultzada | 30.907,43 | 24.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **2.4 Ekintza**<br>Hausnarketa estrategikoa indartzeko espazioak | 184.306,19 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **2.5 Ekintza**<br>Gipuzkoako etorkizunaren egitasmo estrategikoa | 145.722,29 | 125.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |

**3. Jarduketa ildoa:**

Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredua gizartean aintzat hartua izan dadin.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 90,75

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 9,25

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **717.981,73** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **3.1 Ekintza**<br>Gizarteratze jardueren planifikazioa, bultzada, kudeaketa eta jarraipena | 400.573,29 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **3.2 Ekintza**<br>Komunikazio jardueren planifikazioa, bultzada, kudeaketa eta jarraipena | 113.814,86 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **3.3 Ekintza**<br>Akademizazioaren jardueren planifikazioa, bultzada, kudeaketa eta jarraipena | 125.871,29 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **3.4 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz eredua partekatzea eta bereganatzea | 6.907,43 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **3.5 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz-en protokolo jarduerak | 63.907,43 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **3.6 Ekintza**<br>Erakundeen komunikazioan tendentzien analisia eta beste azterlan batzuk | 6.907,43 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

**4. Jarduketa ildoa:**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia bermatzea nazioartean.

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **535.764,30** | **75.000,00** | | **2024/01/01** | **2025/12/31** | |
| **4.1 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz ekimenaren proiektuak sare internazionalekin konektatzea | 303.319,72 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **4.2 Ekintza**<br>Mugaz gaindiko lankidetza sustatzea | 232.444,58 | 75.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |

**5. Jarduketa ildoa:**
GipuzkoaLab bultzatzea eta garatzea, esperimentaziorako eta ikaskuntzarako gunea.

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 17,30 — 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 18,39 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 64,31

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **2.244.397,17** | **902.855,00** | | **2024/01/01** | **2025/12/31** | |
| **5.1 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz portafolioaren esperimentazio sistemikoa | 1.217.708,01 | 552.855,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **5.2 Ekintza**<br>GipuzkoaLab - Proiektu esperimentalen sustapena | 785.244,58 | 150.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **5.3 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz City Lab | 206.907,43 | 200.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **5.4 Ekintza**<br>Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa proiektuaren bultzada eta garapena | 34.537,15 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

**6. Jarduketa ildoa:**
Etorkizuna Eraikiz-en estrategien eta erreferentzia-zentroen jarraipena.

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 22,80 — 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 8,80 — 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 68,40

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **1.141.913,83** | | | **2024/01/01** | **2024/12/31** | |
| **6.1 Ekintza** | | | | | | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arantzazulab erreferentzia zentroa: herritarrak agenda publikoan sartu | 506.907,43 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **6.2 Ekintza**<br>Badalab erreferentzia zentroa: berrikuntza linguistikoa sustatu | 520.722,29 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **6.3 Ekintza**<br>Lurralde garapenerako laboratgia: lankidetzazko gobernantzaren dinamizazioa | 86.654,39 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **6.4 Ekintza**<br>Erreferentzia zentroen eta estrategien koordinaziorako eta lankidetzarako topagunea | 27.629,72 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

**7. Jarduketa ildoa:**
Lurraldeko eragileen proiektu estrategikoetan laguntzea eta lankidetzan aritzea.

% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **2.408.939,87** | **1.071.146,00** | | **2024/01/01** | **2026/12/31** | |
| **7.1 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz-en markoan beste eragileekin lankidetza hitzarmenen jarraipena | 619.222,29 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **7.2 Ekintza**<br>Etorkizuna Eraikiz-en markoan erakunde akademikoekin lankidetza hitzarmenen jarraipena | 976.922,29 | 650.000,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **7.3 Ekintza**<br>Gizarte zibilaren eta lurraldeko eragileen jarduera singularrak | 812.795,29 | 421.146,00 | | 2024/01/01 | 2026/12/31 | ✔ |

**Urteko helburua:** 2024-2027 epealdiko Plan Estrategikoa eta Gobernu Plana modu eraginkor eta efizientean kudeatzea.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lortu diren helburu estrategikoen ehunekoa | Ehunekoa | >= | 0,00 | 0,00 | 70,00 | 70,00 |
| Lankidetza eta berrikuntza | Eskala 1-10 | >= | 0,00 | 0,00 | 7,00 | 7,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| maila Plan Estrategikoaren hedapenean | | | | | | |

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoa:**

Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 90,19

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 9,81

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduketa ildoa, guztira** | **345.428,81** | **100.000,00** | | **2024/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Departamentu Arteko Batzordearen dinamizazioa eta Departamentuko Batzordei laguntza eskaini | 20.722,29 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |
| **1.2 Ekintza**<br>Emaitzetara bideratutako aurrekontu prozesua (EBA) sendotu eta hobetu | 225.024,51 | 66.670,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **1.3 Ekintza**<br>Foru Aldundiaren jarduera GJH eta beste zeharkako politika batzuekin lerrokatu | 54.052,29 | 33.330,00 | | 2024/01/01 | 2025/12/31 | ✔ |
| **1.4 Ekintza**<br>2024-2027 Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluaketa | 45.629,72 | | | 2024/01/01 | 2024/12/31 | ✔ |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Estrategiako Zuzendaritzaren misioa da diputatu nagusiari babesa ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 aldirako estrategia orokorraren definizioa eta gauzatzea sustatzeko eta lidergorako. Plan hori kontzeptualizatu eta garatuko da Etorkizuna Eraikizen baitan proposatutako lankidetzako gobernantzaren ereduaren arabera. Hori guztia kontuan izanda, aurrekontu programak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko duen gaitasuna oso garrantzitsua da. Hala, gaitasun hori gauzatuko da Estrategiako Zuzendaritzaren aurrekontu programa kudeatuta genero ikuspegia kontuan izanda egungo legeen aginduen arabera, eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren plan estrategiko berria definitu, diseinatu, jarraitu eta ebaluatuta genero ikuspegiaren baitan. Halaber, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren lorpena txertatuko da planaren misioa, ikuspegia eta balioak definitzerakoan eta markatuko diren lerro estrategikoetan.
Ildo horretan, lehen gaiari dagokionez, Estrategiako Zuzendaritza Nagusiak parte hartu du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak eta Aurrekontu Zuzendaritzak 2023ko urtarriletik uztailera sustatu zuten eta aurrekontuan genero ikuspegia hobe txertatzea helburu zuen prozesuan. Prozesu horretan parte hartu izanak aukera eman digu aztertzeko emakumeen eta gizonen berdintasuneko aurrekontu programa, eta, aldi berean, baliatu dugu diagnostikorako hurbilpen bat egin eta gure jardun esparruko balizko desberdintasunak identifikatzeko. Zehazki ikusi da hobetu behar dela errealitatea ezagutzen eta desberdintasunak bisibilizatzen laguntzen duten datuak eta informazioa eskuratzeko modua eta horiek gutxitzeko balio duten genero inpaktuko ekintzak gure plangintzan sartu behar ditugula. Ondorioz, jarduketa lerro bat zuzenduko da sexuaren baitan bereizitako datu eta informazioak Etorkizuna Eraikizen ebaluazio sisteman txertatzera, analisiak egiteko aukera ematen duen sistema bat sortzen joateko.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren plan estrategiko berriari dagokionez, lurraldearen erronketako bat da, oraindik ere, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea; hartara, diagnostikoko fasean nahiz hausnarketakoan jorratu beharreko puntu garrantzitsua izango da eta islatuko da misioan, ikuspegian eta balioetan, baina baita definituko diren ildo estrategikoetan eta proiektu traktoreetan ere.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 18.551,36 | ( % 0,17 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 14.563,50 | ( % 0,17 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 3.987,86 | ( % 0,16 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.** | **Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.** | **( % 25,00 )** | |
| | **EBA eta Midenet plangintza orokorreko tresnak berdintasunaren arloko foru politika planifikatzeko eta jarraipena egiteko beharrizanetara egokitzea.** | **( % 75,00 )** | |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonei zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.** | **Go.5.1.3. GFAren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.** | **( % 100,00 )** | |
| **Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkaritza eta/edo postu publikoetan.** | **Ea.9.3.1. GFAren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.** | **( % 100,00 )** | |
| | **Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.** | **( % 100,00 )** | |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Hizkuntza berdintasuneko politikak zeharkakotasuna du ezaugarri, eta, beraz, politika publiko guztiek hura sustatzeko eta bermatzeko neurriak eta jarduerak txertatu behar dituzte. Hartara, Estrategiako Zuzendaritzak, plangintzako tresnak definitu eta abian jartzeko orientazioa ematerakoan, eragin izan dezake helburu hori lortzen lagun dezaketen jarduketak txerta ditzaten.
Jarduketa esparru horren baitan, bereziki garrantzitsua da abian jarriko diren kontratu eta dirulaguntzen hizkuntz mapa osatzea, informazio garrantzitsua ematen baitu prozeduretako hizkuntza berdintasunaren inguruan. Gainera, gure zuzendaritzak laguntzak ematen ditu berrikuntza eta euskara bateratzen dituzten proiektu eraldatzaileak garatzeko, eta horrek laguntzen du gure hizkuntzak zenbait eremutan duen presentzia handitzen eta, aldi berean, eremu horietan esperimentazio berritzailea gauzatzen.
Bestalde, gogoratu behar da Estrategiako Zuzendaritzak paper oso garrantzitsua izan duela eta duela oraindik ere Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoan; laguntza juridikoa, ekonomikoa eta beste edozein arlotakoa ematen dio. Gainera, gure zuzendaritzako zenbait kidek Partzuergoa zuzentzeko eta kudeatzeko sortutako organoetan parte hartzen dute, eta Zuzendaritza jarduten da idazkari gisa.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| 1.- Zerbitzu hizkuntza | Badalab-ek euskararen inguruan berrikuntza linguistikoa sustatuko du |
| | Zeharkako politika izanik, GFAren edozein jarduera Hizkuntza Berdintasuneko planarekin lotzeko ahalegina egingo da |
| 12.- Internet eta intranet sareak | Sareetan euskararen erabilera lehenetsiko da |
| 2.- Lan hizkuntza | Think Tank-eko bileretan euskararen erabilera lehenetsiko da |
| | Proiektuak garatzeko euskara lehenetsiko da lan hizkuntza bezala |
| | Arantzazulab-ek abian jartzen dituen ekimenetan euskara izango da komunikazio hizkuntza nagusia |
| | Egitasmo honetan sortzen diren espazio eta taldeetan euskara ezarriko da lan hizkuntza bezala |
| | Lankidetza hitzarmenen jarraipena egiterako orduan euskara lehenetsiko da lan hizkuntza bezala |
| | Lankidetza hitzarmenen jarraipena egiterako orduan euskara lehenetsiko da lan hizkuntza bezala |
| | Lankidetza hitzarmenen jarraipena egiterako orduan euskara lehenetsiko da lan hizkuntza bezala |
| | Batzordearen saioen garapenean euskararen erabilera lehenetsiko |
| | Planaren jarraipena egiteko ekintzetan euskararen erabilera lehenetsiko da |

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| 5.- Komunikazio instituzionala | Webgunean erakundearen komunikazio guztiak euskaraz, erdaraz eta ingelesez eskaintzen dira. |
| | Antolatzen diren ekitaldietan eta komunikazioetan euskararen erabilera lehenetsiko da |
| | Egiten diren komunikazioetan euskararen erabilera lehenetsiko da |
| | Antolatzen diren ekimenetan euskararen erabilera lehenetsiko da |
| 8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak | |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Estrategiaren aurrekontu programa argi eta garbi lotuta dago 2030 Agendarekin, bi ikuspegitatik:
a) Foru gobernuaren ekintza 2030 Agendarekin lerrokatuta dago, eta EBA da hori ahalbidetzen duen esparrua, eta, gainera, Plan Estrategikoarekin duen lotura ezartzen du. Garrantzitsua da orientazio estrategiko ona izatea, epe luzera lortu nahi diren helburuen eta eraginen ikuspegi argia izatea, horietara bideratu behar baitira diseinatu beharreko politika eta programak. Kasu honetan, GJHek erreferentzia esparru partekatua eskaintzen dute eta plangintza ikuspegi sektorialetatik ihes egiten duen garapenari modu integralean heltzera bideratzen dute.
b) 2030 Agendak, GFAren jarduera lerrokatzeko orientazio estrategikoa ezartzeaz gain, garrantzi handia ematen dio helburuak lortzeko aliantzak ezartzeari (17. helburua). Ildo horretatik, Etorkizuna Eraikiz da GFAren erantzuna, eta guztiz bat dator 2030 Agendak planteatzen duen «egiteko moduarekin».

**Kuantifikazioa:** 11.302.168,00 ( % 101,80 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | 11-Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. | **267.268,58** | |
| **Helbubura** | 11.4 - Gipuzkoako kultura-, natura- eta historia-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak areagotzea. | 267.268,58 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Etorkizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatzea, kontrolatzea eta jarraitzea. | 6.907,43 | |
| | Etorkizuna Eraikiz-en estrategien eta erreferentzia-zentroen jarraipena. | 260.361,14 | |
| | 13-Klimaren aldeko ekintzak<br><br>Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela). | **356.153,86** | **188.213,75** |
| **Helbubura** | 13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko. | 356.153,86 | 188.213,75 |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | GipuzkoaLab bultzatzea eta garatzea, esperimentaziorako eta ikaskuntzarako gunea. | 356.153,86 | 188.213,75 |
| | 16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **2.227.118,16** | **533.048,75** |
| **Helbubura** | 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 736.401,30 | 83.335,00 |
| | **Jarduketa ildoak** | | |

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa. | 272.772,95 | 83.335,00 |
| | Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredua gizartean aintzat hartua izan dadin. | 394.398,29 | |
| | GipuzkoaLab bultzatzea eta garatzea, esperimentaziorako eta ikaskuntzarako gunea. | 25.902,86 | |
| | Etorkizuna Eraikiz-en estrategien eta erreferentzia-zentroen jarraipena. | 43.327,19 | |
| **Helbubura** | 16.07 - Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan | 1.233.522,78 | 449.713,75 |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa. | 45.629,72 | |
| | Etorkizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatzea, kontrolatzea eta jarraitzea. | 95.817,36 | |
| | Gipuzkoa Taldean bultzatzea eta garatzea, hausnarketarako, eztabaidarako eta entzuteko gunea. | 670.145,50 | 261.500,00 |
| | GipuzkoaLab bultzatzea eta garatzea, esperimentaziorako eta ikaskuntzarako gunea. | 364.788,15 | 188.213,75 |
| | Etorkizuna Eraikiz-en estrategien eta erreferentzia-zentroen jarraipena. | 57.142,06 | |
| **Helbubura** | 16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioen arabera. | 257.194,07 | |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredua gizartean aintzat hartua izan dadin. | 257.194,07 | |
| 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA | 17-Helburuak lortzeko aliantza<br><br>Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. | **5.803.626,41** | **1.926.738,50** |
| **Helbubura** | 17.16 - Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna hobetzea, eta horren osagarri izango diren hainbat interesdunen arteko aliantzak ezartzea, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta finantza-baliabideak mobilizatzeko eta trukatzeko, herrialde guztietan, bereziki garapen-bideetan daudenetan, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko babesa emate aldera | 294.908,29 | 54.165,00 |
| | **Jarduketa ildoak** | | |
| | Plan Estrategikoaren kudeaketa. EBA sistema: planaren segimendua, ebaluazioa eta komunikazioa. | 27.026,15 | 16.665,00 |
| | Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia bermatzea nazioartean. | 267.882,15 | 37.500,00 |
| **Helbubura** | 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz. | 5.508.718,12 | 1.872.573,50 |
| | **Jarduketa ildoak** | | |

| GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| Etorkizuna Eraikiz-en aginte koadroa eta dokumentu zorroa koordinatzea, kontrolatzea eta jarraitzea. | 31.939,12 | |
| Gipuzkoa Taldean bultzatzea eta garatzea, hausnarketarako, eztabaidarako eta entzuteko gunea. | 454.931,88 | 237.500,00 |
| Etorkizuna Eraikiz-en Urteko Gizarteratze Plana eta Urteko Komunikazio Plana egin eta garatzeko laguntza ematea, eredua gizartean aintzat hartua izan dadin. | 66.389,36 | |
| Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera nazioarteko sareekin lotzea eta lurraldearen presentzia bermatzea nazioartean. | 267.882,15 | 37.500,00 |
| GipuzkoaLab bultzatzea eta garatzea, esperimentaziorako eta ikaskuntzarako gunea. | 1.497.552,30 | 526.427,50 |
| Etorkizuna Eraikiz-en estrategien eta erreferentzia-zentroen jarraipena. | 781.083,43 | |
| Lurraldeko eragileen proiektu estrategikoetan laguntzea eta lankidetzan aritzea. | 2.408.939,87 | 1.071.146,00 |
| **Guztira** | **8.654.167,00** | **2.648.001,00** |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2023 | 2024 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | 621.317,00 | 690.743,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 2.728.832,00 | 2.265.147,00 | 352.855,00 | | | | 352.855,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 5.448.715,00 | 5.563.277,00 | 2.171.073,00 | 124.073,00 | | | 2.295.146,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **8.798.864,00** | **8.519.167,00** | **2.523.928,00** | **124.073,00** | | | **2.648.001,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | 135.000,00 | 135.000,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **135.000,00** | **135.000,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **8.933.864,00** | **8.654.167,00** | **2.523.928,00** | **124.073,00** | | | **2.648.001,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL | | 690.743,00 | | | | 690.743,00 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | | 2.265.147,00 | | 352.855,00 | | 2.618.002,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | 5.563.277,00 | | 2.295.146,00 | | 7.858.423,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | | **8.519.167,00** | | **2.648.001,00** | | **11.167.168,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES | | 135.000,00 | | | | 135.000,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | **135.000,00** | | | | **135.000,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | | **8.654.167,00** | | **2.648.001,00** | | **11.302.168,00** |